



Antonio Valverde "Ayalde"-k eginiko Koldo Mitxelenaren erretratoa. Oleoa, 1967 urtea.  
(Mitxelena familiaren koadroa)



# KOLDO MITXELENAREN EUSKAL GUTUNAK (1951-1984)

**Patri Urkizu**

Lan honetan Koldo Mitxelenaren *Opera Minora* liratekeenetarik 236 euskal gutun biltzen, aurkezten eta aztertzen dira. Gehienak argitaragabeak (Jose Maria Satrustegi moldiztegitatu gutxi batzuetaz at) eta Donostiako KM kulturuneko liburutegian hala nola Euskaltzaindikoan aurkituak. Bere tipitasunean, ordea, badute gutun hauek interes berezirik, alde ezkutu bat ezagutzeko, alegia, bai zenbait kultura gertakizunen, bai zenbait libururen eta artikuluko-poema-itzulpenen argitaratze aurreko gora beherak argi berriz ikus daitezkeela. *Egan* titeratur aldizkariko zuzendari gisara zein nolako lanak burutu zituen, frankismoaren urte zail eta gogortsuenetan– animatzaile eta bultzatzaile moduan, eta irakasle bezala zein era zehatz eta zorrotzean zeramatzan Ikasgai, Biltzar eta Jardunaldiak. Halaber, eta besteak beste, zein irizpide taxuzkoz antolatu zuen euskararen batasunerako hain garrantzizko izan zen 1968ko Arantzatzuko Biltzarra ikus dezakegu gutun hauen bitartez. Hizkuntzalari ez ezik, literatur kritikari, kultur eragile nekaezin eta idazle aparta agertzeaz gain, bidenabar gutunotan jakintsuaren irudia samurberago eginen zaigu.

Giltz-hitzak: Linguistika. Euskara. Euskal literatura.

En este trabajo se recogen y presentan 236 cartas de Koldo Mitxelena escritas en euskera, que podemos considerar como parte integrante de sus *Obras Menores*. La mayoría son inéditas –exceptuando unas pocas editadas por José María Satrustegi– y sus originales se hallan en el Fondo Urquijo del Centro Cultural Koldo Mitxelena de San Sebastián, y en la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia. Este epistolario, dentro de su bre-

vedad, no deja de tener un interés especial para conocer los avatares de la vida cultural vasca y puede ayudar a conocer la crónica de la edición de ciertos libros, artículos, poemas y traducciones. Qué trabajos llevó adelante en la dirección de la revista *Egan* –en los años difíciles del franquismo– como animador y promotor, así como profesor y organizador de Cursos, Jornadas y Congresos en torno al euskera. Así mismo podemos ver el detalle y cuidado con que preparó el Congreso de Aránzazu de 1968, clave de la unificación del euskera. En fin, además de descubrir en estas cartas al lingüista, al crítico literario, al promotor cultural incansable, y al fino estilista, de paso nos encontraremos con el hombre en sus facetas más humanas.

Palabras Clave: Lingüística. Euskara. Literatura vasca.

Ce travail présente 236 lettres de Koldo Mitxelena écrites en langue basque, qui peuvent être considérées comme appartenant à ses *Oeuvres Mineures*. La plupart de ces lettres sont inédites –exceptées celles qui ont été éditées par J.M. Satrustegi– et les originaux se trouvent dans le Fonds Urquijo du Centre de Culture Koldo Mitxelena et dans la bibliothèque de l'Académie de la Langue Basque. Malgré leur nombre limité, ces lettres possèdent un intérêt certain quant à la connaissance de l'évolution de la culture basque. Elles renseignent sur les processus d'édition de certains articles, poèmes et traductions ainsi que sur les travaux de Koldo Mitxelena comme directeur de la revue *Egan* lors des années difficiles de la période franquiste. Ces lettres témoignent aussi du soin apporté par cet auteur –animateur aussi bien que professeur et organisateur de congrès et de cours de langue basque– au déroulement du Congrès d'Aranzazu, moment clé de l'unification de la langue basque. Ces écrits reflètent les aspects les plus divers de la personnalité de Koldo Mitxelena, linguiste, critique littéraire, styliste et promoteur culturel infatigable

Mots Clés: Linguistique. Langue basque. Littérature basque

## Aintzin-solas

**NORBAITEK** galde egin dezake, edo agian norbaitek baino gehiagok, gogoe-tan hasiz gero, baina nori arraio axola zaizkio errenteriar baten gutunak. Edota galderekin jarraiki, hain interesgarriak eta plazaratzeko modukoak badira, zergatik argitara eman bakarrikan euskarazkoak, aieka batera lagata gizon horren luma zorrotzak, besteak beste, idatzi zituenak gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez edota alemanez.

Erantzuna, ordea, oso samurra da. Koldo Mitxelenaren gutunetatik euskarazko-ak bakarrik hautatu ditugu, ez menturaz zientziaren ikuspuntutik begiratuta garrantzizkoenak hauexek direlako, baizik eta lehen emaitza honetan, –gero gero-koak–, euskal alorrean jorratutako lanak interesatu zaizkigulako, gutunetan agertu-tako gaiak eta estiloak bereganatu gaituelako, eta batipat euskal kultura eta literaturaren esparruan langile eta bidegile, laguntzaile eta bultzatzaile, kritikari zorrotz eta maisu izandakoari begiz jo diogulako.

Iturriak, gainera, aski eskura genituen, aurkezten ditugun berrehun eta hogeita hamasei gutunetarik gehienak Donostiako Koldo Mitxelena Kultur uneko Julio de Urquijo ondarean daude, batzuek Bilbon Euskaltzaindiko Azkue liburutegian, bakan batzuk, –zehazki esanda, hamabi–, jada Jose Maria Satrustegik plazaratuak, bestainbat berak utzitakoak, bat Txillardegik argitaratua jadanik, eta beste bat Inazio Mujika adiskideak lortua.

Bihoazkie bada bai aipatu biblioteketako liburuzainei izandako harrera onagatik, bai aipatu hiru euskal idazleei ene eskerrik beroenak, beraien bitartez eskuratu ahal izan ditudanez gutunok.

Honako liburutxo hau ez da, beraz, noizpait Koldoren benetazko Lan Guztiak izan daitezkeen liburu multzotik ale bat baizik, baina bere ttipitasun eta laburtasu-nean ez horregatik baztergarri edota ahanzgarria. Egungo beharretarako maisuki egokituriko Mitxelenaren euskara zehatz, zorrotz eta zuzena dastatzeaz gain, berrehunetik goiti diren gutun hauen bitartez jakin baitezakegu zein nolako harre-manak ukan zituen hala irakaskintzan nola kultur mundu zabaleko –edo, tamalez, zorrotzago esatearren, euskal giro aski hertsiko–, arloan.

Aitortu beharrean gaude halaber, –gehienetan liburuetatik kanpo gelditzen direlarik hauen sorkuntzako aurre-baldintzak, gora-beherak eta istiluak, garaiko benetazko kultur-giroa, hertsikeria, zentsura eta aukerak–, guzti hori ezagutzeko ezinbesteko eta benetan balios izan daitezkeela gutunok. Horrexegatik, hain zuzen, plazaratzen ditugu.

Esan dugun bezala, gutun hauen bitartez ikusiko dugu Koldoren ohizko, –hizkuntzalari, gramatikolari, hiztegi-gile, literatur kritikari, zine-komentariogile–, irudiaz aparte, orain arte ezagutarazi ez den alde ia ezkutua, hau da, benetazko irakasleari dagokiona. Batez ere, zuzendari, eragile eta bultzatzaile, animo eta ideia emailearena.

Mende honetako erditsutan sortu eta oraindik gaur egun bizirik dirauen *Egan* literatur aldizkariko bizitzan sakontzeko okasio aparta dugu oraingo honetan, bertako idazkari nagusi izan baitzen, eta besteen artean egiteko honen bitartez gerra-ondoko garai, alde guztietatik zail eta pobre ziren haietan euskara eta euskal literaturaren esparruan agertzen zihozten lan guztien, edo gehienen, berri zehatza emango baitigu Mitxelenak.

Linguistikako lanak, hiztegiak, antzerkiak, poesia antologiak, goi mailako poeta eta narratzaileen itzulpenak, ipuinak, filmak izango ditu aipagai, laudorio eta kritika solasgai. Inolako arazorik ez eta aurreiritzirik gabe bere iruzkin jakintsu eta justuak isurtzen joango da Koldo jario benetan aberats, eder, esanguratsu eta beti baliagarrian.

Eta gutunetako emaitza horixe, bada, modu zertxobait xeheagoan joango gara aztertzen aurkezpen apal honen ondoren, luzamendurik gehiago gabe, datozen hurrengo orrietan.

## **1. Koldo Mitxelenaren bizitza zertzeladak**

Deus guti erants diezaioket jadanik Eujenio Ibarzabalek, Juan San Martinek, Elxabete Perez Gazteluk eta Idoia Estornesek bai bakarrik bai taldean Koldo Mitxelenari buruz idatzitako liburuetan diotenari. Halere, laburzki bederen eta sarrera gisara, bildu nahi nuke hona mugarriztat jo ditzakegun maisu errenteriarraren zenbait irakaspen eta bizitza zertzelada.

Mila bederatzirehun eta hamabosteko abuztuaren hogeian jaio zen Errenterian, Eliza nagusiaren horma zaharretatik lauzpabost metro tara aldapatxo batean dagoen Goiko kaleko Gaztelondo izeneko etxean.

Alfontso XIIIak eta Doña Victoria erreginak bisitatu eta inauguratu berria zuten zuela hilabete bat Errenteriako abenida, fabrikez betetzen hasia zen herrian. Monarkia borbondarraren pean, ez ziren guti izan, industrializazioa hazten ari zelarik, lan gatazkak eta istiluak, alderdien norgehiagokak, hauteskunde garaian giro gori gorria sortuz, dena fabrika ziren herrietan, ongiasko eta

xehetasun handiz kontatzen diguten bezala bai Felix Luengok, bai eta Juan Karlos Jimenez de Aberasturi historialariek.

Pasaiako portuaren hurbiltasunak Erreterian eta inguruko herrietan garapen azkar bat sustatu zuen, eta ondorioz 1910ean 5527 biztanle zuen herriak hamar urte geroago 6956 bazituen.

Koldoren gurasoak langile umil eta apalak ziren. Aita 'xexterua' zen, saskigilea, eta ama Donibane Lohitzuneko ehuntzaile baten alaba, eta, noski, biak euskaldun peto petoak.

Abertzaletasuna Gipuzkoan Bizkaian baino beranduago hedatu zen arren, jada 1920ean, gure Koldok bost urte zituenean, Arturo Kanpion idazle eta euskaltzale nafarrak inauguratu zuen Erreterriako batzokia, garaian Geltokiko abenidan eta gaur egun Zumardia deitzen den lekuan dagoena.

Mutil koxkor zelarik txurmioa okertu zitzaion Koldori eta luzaro etzanda ego-tea suertatu. Beraz, entretenimendu bezala eskuetara iritsitako paperak soilik zituelarik, sekulan geroago itzaliko ez zitzaion irakurtzeko izugarrizko grina piztu zitzaion. Denetik leitzen zuen. Dick Turpin eta Bufallo Bill-en abenturak gaztelaniaz. Donostian 1921az geroz plazaratzen zen *Argia* astekaria euskaraz. Eta oro irensten zituen, inoiz ase ezinik. Zaletasun hau ikusiz, batxilerra burutzer a bultzatu zuten etxeok eta hau Donostian bukatu zuen Primo de Riveraren diktadura pean, eta Erreterriako alkate Karlos Itxaso-Asu (1923-30) erregezalearen garaian.

Mila bederatzirehun eta hogeita hamarreko neguan abokatu gazte baten mitinera joan zen. Honen deitura Jose Antonio Agirre. Gidari gisara parrokian Oiartzunen jaiotako Martin Lekuona apaiza izan zuen, eta JOC-eko, Langile Gazte eta Katoliko bileretan parte hartzen zuen, besteren artean Andoni Korta, Sabin Lasa, Sabin Olaskoaga, Bittor Idiazabal eta Eusebio Zubillaga kide zituela.

Hemeretzi urterekin (1934) EAJ-n eta ELA-n izena eman zuen, Erreterriako Eusko Alderdi Jeltzaile eta Eusko Langileen Elkartasuneko lehenetariko partaide izanik, hau da, karnetan afiliatu gisara zenbaki beheenetariko izan zuen. Eta kirola ere maite zuenez, herriko Eusko Gaztedi Kirolzalea-n sartu zen. Gazte aski herabetia izaki nonbait, berak beranduago aitortuko duenez, lotsa galantak pasatzen omen zituen auzoko eta herriko jende ezagunari *Gipuzkoarra*, aldizkari aber-tzalea Erreterriako kale eta plazetan eskaintzerakoan.

Zorigaitzeko gerra piztu zelarik 1936ko uztailean, militar batzuk hauteskunder-tan hautatu Errepublikaren kontra asaldatur, Koldok bere burua boluntario bezala aurkeztu eta euskal batailoietan parte hartu zuen, esate baterako, beste erreteriar batek, geroago adiskide izan zuen Felipe Lizaso komandanteak zuzendutako *Itxar-kundia*-n. Teniente kargua eman zioten 1937ko urtarrilaren 28an, eta apirilaren 5ean gerra zaurituen artean aurkitu zen. Villarraleko erasoak kontatzen behin baino gehiagotan entzun izan dut, eta dudarik gabe beste askori bezala gerra zibi-

lak bere gorputz eta ariman zauri sakon eta ahantzezinak utzi zizkion. Gudaloste abertzaleak errenditu zirelarik, Duesoko kartzelan une larriaskoak iragan zituen preso heriotza zigorraren zain. Larrinagako presondegitik iraganik azkenean 1938ko uztailaren 28an Burgoseko kartzelan eman zituen bost urte luze.

Hamaika sufrimendu pasa ondoren, 1943ko otsailaren 28an baldintzapeko askatasunarekin atera zen. Frankismoaren urterik zailen eta gogorrenak ziren lanik gabe eta 'rojo-separatista'-tzat fitxatua zen batentzat. Gerrara joanez geroztikan zazpi urte latz, triste eta odoltsu iraganak ziren sorterrira eta etxera berriro itzuli baino aurretik. Urangatarren enpresak kontu-emaile bat behar zuela Madriden eta haraxe joan zen lanera. Hemen, ordea, ez baitzen Koldo geldirik egoteko jaioa, Joseba Rezola abertzalearekin topo egingo du eta elkarrekin klandestinitatean lanean hasiko dira.

Garai arriskutsuak ziren, benetan, eta ondorioz 1946ko apirilaren 10ean berriro preso hartu zuten, botereaz borroka armatuaren medioz jabetu nahirik omen zebilen organizazio baten partaide izatearen akusaziopean. Erreinzidentea zen, gainera. Beraz, Alcalá de Henares-eko kartzelan hamasei hilabete igaro beharrean gertatu zen, eta Ocaña eta Talavera de Reina-ko presondegiak *dastatu* ondoren 1948ko udaberrian aterako da libre.

Errenteriara itzultitakoan lana eta estudioak lotu beharrean aurkitu zen. Bestalde, kartzelan laguntzaile bezala ezagutu duen Matilde Martínez de Ilarduya andereño arabarrarekin ezkonduko da 1949ko uztailaren 2an.

Urte honetan hasiko da ere, hain zuzen, bere ikerketa eta irakurketen lehen emaitzak argitaratzen, bai Julio de Urquijoren omenez egindako liburuan, bai eta *Boletín de Amigos de País* eta *Emerita* aldizkarietan.

Frankoren kontra 1951ean eraturiko greba orokor famatuan parte zuzena hartu bazuen ere, esan dezakegu gero eta murgilduago ibiliko dela irakaskintza eta kultur munduan. Honela urte bereko urriaren 19an *Filología Clásica* delakoan lizentziatura titulua lortu zuen Madrideko Unibertsitatean, eta zenbait urte beranduago doktorearena, 1959ko maiatzaren 26an, hain zuzen, iberikoan aditua zen Jose Vallejo doktore jaunaren zuzendaritzaren pean *Fonética Histórica Vasca* tesia aurkeztu zuelarik. Koldoren lan hau garai hartan euskal hizkuntzalaritzan burututako garrantzizkoena izan zen, noski, baina lehenagoko emaitzez jadanik Euskaltzaindia ohartua zelarik, bertako 'lankidetzat' hartua zuen 1952an.

Gure bildumaren gutunak hasten diren urtean, hots, 1951ean, *Egan* aldizkari-ko kontseiluan eta *Seminario de Filología Julio de Urquijo* delakoan idazkari eta zuzendaritzako partaide izendatuko dute, bertako kudeatzailearik garrantzizkoenean bilakatuz.

Mila bederatzirehun eta hirurogeita bateko urtarrilaren 22an Errenteriako udal-txean egin zuen Koldok Euskaltzaindiaren sarrera hitzaldia, XVII-XVIII. mendeko euskal hiztegi-gileez.



Torrelavegako Institutuko latin katedra lortu zuen 1965ean, eta hemendik Donostiako Peñafloredako Kondearen Institutura iragan zen hurrengo urtean, baina bere begiak eta ardurak aspalditik Unibertsitatean ezarriak zituenez, Salamancako Unibertsitatean Cátedra Manuel de Larramendi-n 1955az geroz bederen parte hartzen baitzuen, 1967ko martxoaren 14ean bertako *Lingüística Indoeuropea*-ko katedra lortu zuen, bertan hainbat urte emanik.

Adiskidea duen André Martinet hizkuntzalaria Japonera zihoala eta bere ordeko lanak eginen ditu Sorbonako Unibertsitatean, Parisen, linguistika konparatua, soziolinguistika eta euskara irakatsiz. Alabaina, aukera izango du hemen, bere jakin mina ase nahirik, hizkuntzalari eta indoeuropeista aparta den Emile Benveniste irakaslearen klaseetara joateko.

Mitxelenaren ospe eta izen ona gero eta handiagoa zenez *Zeruko Argia*-n egin zioten elkarrizketa batean galdetzen diotenean, ea zergatik dagoen Salamancan irakasle, eta ez ahal liokeen Euskal Herriari bertatik on handiago egingo eta gure zabarkeriaz ote zegoen zegoen tokian, erantzuna ohi bezala zuzen zuzena izan zen:

*Salamancan nago hemen duten bezalako lekurik hor ez dugulako [...] Estatuak Unibertsitatea zor digu, unibertsidade osoa, eta euskaldun jendea sartua behar genuke unibertsidade honetan...*

Beraz, Frankoren heriotzaren ondoren, Euskal Herriko unibertsitate publikoa sortzen denean 1977ko urriaren 3an, Koldok Salamancako giro atsegin eta lasaia utziz sorterrirako bidea hartuko du 1978ko martxoan Filosofia eta Letretako fakultatearen ardura Gasteizen hartuz. Bere ametsetarik bat betea aurkitzen zen.

Bertan berari zegokion bereziki Euskal Filologia saila eratzea eta euskal gizartearen beharrei ahalik eta modurik egokienean erantzutea izan zuen kezkarik nagusien eta nabarmenetakoa. Ametsak nahi bezala osatzea eta gauzatzea ez da izaten, ordea, hain erraza.

Burutu zuen lanaren fruitu eta ohore garaia ere iritsi zitzaion. Honela 1982an Bordeleko Unibertsitatean eta bi urte geroago Bartzelonako Unibertsitate Autónoma-n *doctor honoris causa* izendatu zuten, eta 1983-84ean Ossian eta Ramón Menéndez Pidal sariak eman zizkioten. Euskal Herrian ez ezik, Espainian eta Europan bere lanen ezagutza eta ordaina hedatze bidean zegoen.

Laster, alabaina, 70 urte zituela, 1985ean jubilatu zen, irakasle emerito gisa ikastaroak ematen jarraiki zuelarik. Lasterregi, ordea, eta goizegi tamalez Euskal Herriko kulturarentzat eta etorkizunarentzat aspaldidanik zauritzen zuen eritasun gaizto eta min batek 1987ko udazkenean, urriaren 11an berekin eraman baitzuen.

## 2. Koldo Mitxelena hizkuntzalaria

Koldok ohikoa zuen umore fin eta garratzez Joan Coromines-ek idatzitako gutun batean *comparatiste en chômage* zela, aitortzen zion, alegia, paroan zegoen konparatista, esan nahi duenak, hemeretzigarren mendeko hizkuntzalari konparatisten artean aurkitzen zela, haien eskolako eta jarraitzaileetariko bezala zeukala bere burua.

Kartzelan adiskide onek eskuartearen hizkuntzalaritza liburu zenbait utzi zioten, eta hauen artean Ramón Menéndez Pidal-ek idatzitako *Manual de gramática histórica española*, eredutzat hartu zuena euskararen ikerketan sakontzen joateko. Baina ez zuen Koldok hura bakarrik erabili luma aldamenean zeukala, ezen Gipuzkoako Diputazioak erositako Julio de Urkixo familiari honen liburutegi aberatsa eta bertako hamar milatik gorakoen artean gaztelaniazkoek aparte, frantsesez, ingelesez, alemanez eta beste hizkuntzetan idatzitako linguistikako anitz bazen, –eta bada–. Manuel Alvar, Vigo Bröndal, Herman Hirt, Nils Magnus Holmer, Antoine Meillet, Hugo Schuchardt, Ernst Zylarz...

Jokin Gorrotxategi irakasleak aipatzen digunez, Koldori izugarri laket zitzaizkion historia eta aurre-historiako gora beherak, baina, zentzuzkoa den bezala, ezinezkoa da aurre-historiara hurbiltzea eta inguratzea, lehenik historia ondo ezagutu gabe, eta honetarako nahita nahiezkoa, ezinbestekoa zitzaion Filologiak eskain diezazkigukeen erramintak ongi menderatzea, alegia, testuak. Obrak eta hauen edizio fidagarriak.

Honela, 1953an Koldok bere lehen liburua argitaratu zuenean, *Apellidos Vascos*, deitua, iduriz beste titulu zenbaiten antzekoa zena, ez zen hala, ordea, nabarmentki ikus baitzitekeen beste oinarri filologiko sendoago batzuekin eraikia zegoela zerrenda hura, eta batipat erdi aroko toponimiaren ezagutza sakon batean finkaturik eta balizko etimologiarik asmatu gabe.

Salamancako unibertsitatearekin Koldok harreman goiztiarrak izan zituen, eta honen adierazgarria da bertako argitaletxean 1955ean plazaratu zuela Manuel de Larramendi katedrako argitaraldi bezala, Karl Bouda eta D. Baumgartl-ek idatzitako landareei buruzko euskal izenak, berak alemanetik itzulia eta egileek berrikusia.

Honen moldiztegi hutsak eta okerrak zirela izan zuen Mitxelenak Bouda-rekin harremanik, gutunetan ikusiko dugun bezala. Bouda-k 1933az geroztik Berlinen argitaratu zituen zenbait lan euskalkiez (lapurteraz, goi-nafarreraz, zubereraz...) hala nola aditz iragangaitzaz eta iragankorraz, baina baita ere kaukasiar eta siberiar hizkeraz, eta zabaltzen hasia zen euskara eta kaukasiar hizkuntzei buruzko hipotesiaz, egiten ziren etimologiak kritikatu.

Testuen azterketa zehatzak eraman zuen, noski, Julio de Urkixok zuzendutako RIEV aldizkarian murgiltzera eta bertan fac-similetan plazaratutako testu zaharrak sakontzera, besteen artean *Refranes y Sentencias de 1596*, eta honen inguruan argitaratu gabe Urquijok utzi zituen zenbait lan. Manuel Agudekin batera Landu-

chio humanista italiarrak 1562an bildu eta argitaragabe utzitako euskara-gaztelania hiztegia ere publikatu zuen. Bai halaber zenbait dotrina, esate baterako, Beto-lazarena (1596) eta XVII. mendeko bizkaierazko dotrina *Viva Jesus* bezala ezaguna.

Bilketa eta sakontze lan honen emaitza bezala hartu behar dugu 1964ean moldiztegitatu zuen *Textos Arcaicos Vascos*, euskal testu zaharren bilduma, non ikus daitekeen ongiasko ezagutzen zituela antzeko beste hizkuntzetako bildumak, hala nola A. Ernout-ek latin arkaikoaz edota Menéndez Pidal-ek gaztelania zaharraz egindakoak. Bere zorrotasunari jarraiki ahozko tradizioz iritsitakoak baztertu zituen hiru kapitulu mardul eta zehatzetan, non lehenean antzinateko lekukotasunak, bigarrenean erdi arokoak, eta hirugarrenean XVI eta XVII mendekoak biltzen dituen.

Azken hauek dira, noski ugarietak, eta Mitxelenak aitortu arren ez dituela diren denak emango, berrogeita sei aipatzen eta aztertzen ditu. Badira, ordea, azken urte hauetan agertu diren beste batzuek, hala Jose Maria Satrustegik ezagutarazi dituenak nola Joseba Lakarrak aipatuak.

Euskararen etorkiaz interesaturik dagoenez, bi hipotesi nagusiak, hau da, euskara-iberoaren eta euskara-kaukasikoaren ahaidetasuna adierazten eta ondorioztatzen dutenak sakonki eta xeheki aztertuko ditu, bai halaber beste zenbait iritzi eta uste erdi ustelak, hala nola euskara-zeltikoarena, bi hizkuntza hauetan hitz irudi berdintsukoak ageri direla eta. Honetarako bibliografia eguneratuenaz baliatuko da, adibidez, Jon Miranderi hizkuntza kaukasikoetan, armenieran eta georgieran bereziki aditua den Hans Vogt-ek Parisen Hizkuntzalaritzako errebista batean argitaratutako lan berezi bat eskatuko dio, zein gero bere idazkietan birritan aipatuko duen.

Zalantza eta duda sakonak dituzte, beraz, bai Mitxelenak bai eta Vogt-ek, konparazioen emaitzak egungo egoeran daudelarik, ezer taxuzkorik ondoriozta ote daitekeen, ez baita aski hitz zenbaiten antzekotasuna, hala nola *zakur* hitza hedatua izan dadin Kaukasotik Euskal Herriraino, Grezia, Korsika eta Zerdeñan barrena, egituretan finkatu behar den ahaidetasuna aldarrikatzeko.

Hona esate baterako gutunetan Miranderi nola adierazten dizkion ahaidetasun kontu hauek euskaraz, eskuarki gaztelaniaz edota frantsesez mintzatzen zelarik.

*Gaiñerako euskal-keltiko itz-berdintzei buruz, bi itzetan erantzungo dizut. edo oker daude, nere ustez, edo latiña izan da bitarteko. Baditeke, orratik, gutxi edo inoiz aipatzen diren beste batzuzuzenak izatea.*

*Euskerak eta iberikoak izan dezaketen ahaidetasunaz mintzatzea zaillago da. Euskera ezta, nere ustez, iberikoaren ondorengoa, ezta iberikoa ere, euskera zaarra. Orrela balitz ulertuko genituzke textu iberikoak, eta ez tiegu deus igertzen. Badira, bestalde, zenbait ber-*

*dintasun arrigarri: otsetan dirudienez eta itzetan ere bai formari bagagozkio beintzat. Baliteke, esan oi den bezala, euskerak iberikotik jasanak izatea. Orrela bear lukeela dirudi, baiña...gerta ote liteke euskerak, esate baterako, bihotz edo bizkar beste nonbaitetik artuak izatea? Etzait erraz iruditzen. (81, 1956-11-5)*

Atzera-pausuak emateko bermea behar du hizkuntzalariak erabiltzen dituen materialetan, eta honetan aitzindari izan zituen Mitxelenak, besteen artean, Karl Brugmann, Antoine Meillet, Emile Benveniste, Michel Lejeune eta André Martinet. Urratsez-urrats ziurtasun osoz edo gehienaz ibiltzen lagundu zutenak. Azken honetaz, jada mintzatu gara zertxobait, Mitxelenarekin zuen adiskidetasuna aipatzerakoan, baina erantsi beharra dago Martinet irakasle frantsesak parte hartu zuela ere Bilbon 1981ean Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietan euskararen historia aztertuz.

Jakina den bezala Koldoren hizkuntzalaritzako dotrina, hastapenak eta berreraikintzarako metodoak Salamancan 63an argitaratu *Lenguas y protolenguas* liburuan biltzen ditu, eta aski lan desmitifikatzailea gertatu zen. Saussure-ren iritziaren aurka agertzen da, honek esaten zuenez, ezin zela euskara isolatua zegoenez baliatu deusetarako, inolako konparaketarik egiteko, Koldoren ustez, ordea, euskara konpara daiteke batez ere latinarekin eta aldameneko hizkuntzekin. Pentsatzen du, halaber, protohizkuntzak alabeharrez beren eraikuntzetan osagabeak direla, eta gehiegixko itxaron izan dela glotokronologiak eman zezakeen fruituez. Bestalde, argi eta garbi azpimarratzen du, urrun dauden hizkuntzen arteko ahaide-tasunaren baieztatzeak edota munduko hizkuntza guztiena aldarrikatzeak ezer gutxitarako balio duela.

Pierre Lafittek ongiaski eta klarki adierazi zuen bezala, hizkuntzalaritzaren joerei eta eskolei buruzko gogoeta sakon eta ezagutza handi baten hala nola praxis berreraikitzaile zorrotz baten adierazle da, Descartes-en *Discours du méthode* delako baten antza eta kalitateak dituen lana, noski. Gehien harritzen zuena Mitxelenarengan, euskalkien ezagutza eta erabilera paregabea zela, euskararen barne-historiaren eraikintzan hala nola euskarak bereganatu duen latin-erromani-koaren azterketa egiterakoan.

Euskararen etorkizunaz noizpait ere mintzo da Koldo, baina dena beltz ikusten dutenen aurrean, edo igerle ezkorren aitzinean nahiago du bere hondar alea eskaini hondoratzetik salbatzeko untzia, zeren anitzetan deus ez egiteko aitzaki baizik ez diren zenbaiten itxaropenik gabeko susmoak. Hona Andima Ibiñagabeitiari, *Euzko Gogoa*-ren ikuspegi ilunegia salatuz, esaten diona:

*Badakit gure izkuntzaren egoera eztela atsegin-atsegiña eta kezkabiderik aski badugula baiña bein eta berriro ori esatearekin ezer –edo zerbait beintzat– aurreratzen aal dugu. Euskaltzaleek badakite geiegi ere, guk esan gabe. Eta euskaltzale eztirenek, arako Stentor aren mintzoa bagendu ere, elituzkete gure negarrak adituko, euskal-aldizkarietan ari geraiño beiñikbein.*

*Okerrena duzu zenbait euskaltzale are negar orrek berotu baiño oztu geiago egiten dituela. Ondamendira goaz, eztugu iñon igespi-derik ikusten... Zertako bada, alferrik ari? Badakigu gure jendea mutilla dela bere barrena lasaitzeko aitzakiak billatzen. Naiago dugu geienetan ari baiño egonean egon. (23, 1955-VII-6)*

Horrela bada, lan baikor bati helduko dio, ekin eta jarrai lema zaharrari eutsiz. Hizkuntzalaritzaz eta euskaraz arduratuko da begi-belarri, eta batez ere hiztegi-gintza sailean saiatuko da. Arlo honetan hain da bere ezagutza sakona Angel Rosenblat bera, Martin Ugalde euskalduna bitartekari duela, arituko zaiola galdezka hitz kontuez, adibidez, Jose M<sup>a</sup> Iribarrenek jasotzen duen *ojos de pichirri* 'ojos pequeños' esamoldeak bere bigarren osagarrian euskararekin zerikusirik duen jakiteko, baina Mitxelenaren erantzuna beti ohi bezain zuhurra izanen da:

*Pichirre orrek alako euskal-soiñua badu, baiña eztut uste besterik duenik. Egitura orretako itzak maiz sortu oi dira nonnai eta sortu orduko nolana aldatu ere bai. (134, 1959-VII-6)*

Egiten ez den bitartean Koldok buruturiko etimologia guztien eta ohar kritikoe-kin zerrenda, interesatuak Jose Juan Arbelaiz-en lanera jo dezake bertan aurkituko duenari zehaztasun eta bitxikeria franko.

Hizkuntzaren arlo gehientsuenek hartu zuten Mitxelenaren ardura, eta euskal fonetikaren historiaren inguruan gauzatu bazuen bere tesia, gutun hauen irakur-lea ohartuko da ere zenbaterainoko esku eta parte izan zuen Araian jaiotako eta bai kartzela eta bai erbestea ezagutu zuen Andoni Urrestarazu "Umandi"ren gramatikan.

Lau gutun luze eta oharrez beteak, non argitzen dion horrelako liburu baten beharrean zeudela, eta egindako zuzenketa guztiak, besteak beste, "itana"ren adizkerazkoak, zein esaldi nagusietan baizik ez diren agertzen, *sine ira et cum studio* eginak dituela, alegia, inolako haserririk gabe baina arreta handia egitekoan ezarritik, eta

*A, beste zuzenketak. Aalegiñean, sine ira et cum studio egiñak dituzu. Euskaldun naizen aldetik, gauza bat nai nuke, ez iñor maitatu eta ez iñor gorrotatu. Orrela, zer komeni zaigun jakiteko burua argiago genduke. (61, 1956-VII-15)*

Fonetista, fonologo, lexikografo, gramatikalari, hitz batean hizkuntzalari erabat osatua izateaz aparte, euskaldunentzako badu Mitxelenak beste aurpegi bat ere, alegia, euskara batuaren bultzatzaile eta habe nagusien egilearena. Gutunetan ikus dezakegu, batez ere, Juan San Martinekin izandakoetan, nola 1968ko Arantzazu-ko Biltzarrerako azken puntu eta muturreraino nahi izan zituen gauzak aurrez begiztatu.

*Batasun gaiaz mintzatu zitzaidan Villasante [...] Ortografiareki-ko puntuak, aski azertuak daude eta, Bayona'ko erabakien ondoren, Euskaltzaindia ere mintza diteke, nik uste, zenbait gauza erabakiz eta beste zenbait oraingo, idazleen esku utziaz, naiz jomugak aurrez markatu. (201, 1968-III-20)*

Hona inguratzen denean gertaera idazten diona:

*Batzarrarekiko antolamenak ongi iruditzen zaizkit eta ez dut deus ikusten baztertuta gelditu denik. Ponenteez egiten didazun galderaz, berriz, ez dakit zer esan. Denak joera berekoak edo beintzat beretsukoak izatea ez da komeni, eta Zatarain jakitez ederki ornitua dugu euskal-gaietan, iñor baldin bada, bestetik. Alde txar au ikusten diot, ordea, praktikotasun gutxiegi ote duen edo. (207, 1968-VIII-22)*

Sor daitezkeen gora-beherez mintzatu baita Karlos Santamariarekin, hona *post-scriptum* edo gutuna idatzitakoan eginiko oharrean San Martini zer idazten dion:

*Biok pentsatu genduen on litzakeala Euskaltzaindiak dirulaguntzaren bat edo beste sor ahal baleza zenbait gazte batzar osoan han egon ditezen (Sarasola eta, alegia). Zerorrek ere horrelako zerbait pentsatuko zenduen zeure aldetik, noski. Gazteak falta bazaizkigu, oker ibiltzeko arriskuan gera. (208, 1968-IX-27)*

Zazpi urte beranduago Argia aldizkarikoek galdatzen diotenean indar “biologikoez”, edo gazteen bultzada berri hark behartu al zuten euskara batuan murgiltzera erantzuna beti bezain argia eta zehatza izanen da.

*Berandu eta ezinbestean sartu nintzen gainera, eta bat nator Arestirekin, arazo horretan: egia ere da bestalde, betidanik saiatu izan naizela gure arteko hizkuntz-bereizkuntzak gehi eta areago ez zitezten. Nori berea eman behar baldin bazaio, eta hori omen da zuzenbidea, Sarrailhe izan genuen aitzindari bide horretan, eta haren inguruan bildu ziren “axulartarrak”. Hark, egia esan, nahia-go zuen Leizarraga Axular baino.*

*...Arantzazuko “okasio” hartan, bidea markatua eta irekia aurkitu nuen nik. Ez nuen uste orduan, ta ez dut orain uste, arrazoi-bide hutsen bitartez batasunera hel gaitzkeenik. Besterik ere behar da horretarako: gibelaldetik bulka eta bultzaka ari den indarren bat. Eta indar hori, bela haiza eta mugi zezakeen haizea, alde batean ikusten nuen. Ez bakarrik gazteago zirelako indardunak, baizik eta eragileago, langileago eta emankorrago agertzen zirelako. (Argia, n°1662, 1975-II-2)*

Hogeita hamar urte beranduago, balantzea egin nahi baldin bada beharrezko izaten ohi den distantzia hartuz, ongi atera zela batzar hura aitortu beharrean gaude, han Mitxelenaren txostena jarraikiz egindako proposamenak gehiengo

zabal batek onartu baitzituen. Bere itzal zabalak, bai zaharrek eta bai gazteek zioten errespetua eta begirunearen ondorioz, lortu zuen zaharriaren eta gazteriarren artean etenik gerta ez zedin, kateari eutsi egin baitzitzaion. Aipatu berri dugun elkarrizketa honetan Koldok gauza benetan interesgarriak eta zentzuzkoak diosku. Adibidez, kritikaren premian garela bai zaharrok, eta bai gazteek. Zaharra ez dela, zahar delako eta kito, errespetagarri; gaztearen iritziek ez dutela, gazte baten ahotik edo lumatik jaiki direlako amen-amenik merezi. Eta, oraindik egungo egunerako, Mitxelenaren heriotzatikan hamar urte jada iraganak direlarik, baliagarri dena, hots, ez lukeela inork, ez zahar, ez gaztek bulda erosteko eskubiderik izan behar, eta bulda, orain, herri euskararen aldekoek bula bihurtu duten hori dela.

### 3. Koldo Mitxelena literatur kritikaria

Belaunaldi berrikoek agian urte batzuen buruan hobetsiren dute *rewriting* hitza *Egan* literatur errebistaren inguruan Koldok egindako lana definitzerakoan. Baina bizitzaren biderdian gaudenok, edo agian egokiago litzateke esatea afrikarrek bezala, eguzkia jada bizkarrean, gibelean daramagunok, beharrezko mailegu berrien aurka ez izan arren, nahiago dugu esan aurkezpeneko solasean bezala, bultzatzaile, zuzentzaile, aldizkari kudeatzaile eta literatur kritikari lana izan zela.

Gutunetan lehena, 1951eko otsailaren seian Federiko Krutwigi idatzia da, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan zegoen liburutegiko zenbait lan eske datorkiolarik. Zenbait gutun geroxeago erbestetik etorri berria den Nikola Ormaetxea “Orixe”-ri, euskal literaturako gailurra bezala joa ohi denari zuzendutakoa dago, *zure etorrera Euskal-erriaren eta euskararen onerako izango dela uste dugu*. Ezaguna da ere Orixe Ameriketatik etorri zenean Olaberrian egin zioten harrera, eta bertako fotografia 1954ean aterea, non ikus daitezkeen garaiko euskal idazlerik ospetsuenak: Jose Artetxe, Klaudio Sagarzazu “Satarka”, Jesus Elozegi, Andres Bereziartua, Juan Garmendia “Zeleta”, Nemesio Etxaniz, Jose Agerre, Manuel Lekuona, Antonio Labaien, Antonio Valverde eta Koldo Mitxelena bera.

Gutunen bitartez Mitxelena saiatu zen *Egan*-erako bereganatzen Orixe, eta euskal literaturaz *interview* bat, elkarrizketa egin nahi ziola adierazi bazion ere, ez zuen gauza handirik lortu, zirikatzen ibili ondoren, ikus dezakegun bezala “Orixe gure artean” izeneko artikulutxoan.

Hirurogeita batean hil zen Orixe eta handik bi urtera Koldok *Atariko*a idatzi zuen egin zitzaion omenaldian. Paulo Iztuetak, halaber, lan serio eta luze baten ondoren, artoski bildutako bost tomo handietan eman zigun Orixeren obra osoa, bertan sartu zituelarik sorkuntzazko eta itzulpenezko lanak, hala nola artikulua, saiakerak eta jaiotza mendeurrenean egin ziren azterketak, baina oraindik, tamalez, falta dena da guztiz interesgarria litzatekeen eta egiteke dagoen Orixeren gutunen liburukia.

Orixe pobre eta gaixorik itzuli zen Ameriketatik, hezueriak jota, “zhiamina zizta-koak” maiz pairatzen zituela, bere iloba Joxe Maria Aranaldek babespean hartu zuelarik hil arte. Baina Iztuetak zioen bezala, urrungo bake-girotik etxeratu zenean hartu zuen izualdi handi bat eta hau, goraka zetorren euskal belaunaldiaren berrikeriek eman zioten, zalantzarik gabe.

Izuemaile hauetarik bat, adibidez, Jon Mirande zen Koldoren lagun-mina. Jonek eta Koldok badute elkarrekin gutun gurutzaketa ederra benetan, berrogeita hamarren batera iristen dena 54-tik 64-erako epean. Mitxelenak Parisetik liburuak eskatzeaz aparte eta Euskal Herritik Frantziako hiriburura euskal girokoak bidaltzeaz gain, Mirande idaztera bultzatzen zuen. Behin zeltar hizkuntzez zerbait idatz dezan eskatuko dio, edo poemaren edo itzulpenen bat, *Ez ote zenduke orratik besterik, zerorrenik edo beste izkuntzetatik itzulirik. Ederki etorriko litzaigu-ke, emen ere, nonnai bezala, bertsogilleak ugariago baitira olerkariak baiño* (17, 1955-III-8), edo ipuinen bat. Bestean *Egan-en* elkarrizketa zenbaiten bitartez nahi duela irakurleak jakin dezan idazten dituen bertsoen mamia, *–Bat edo bat marmarrean asia duzu onezkero–*, hala nola *Paranoia* poemaren esanahia, ezen lehenagotik bidaliak zizkion Jonek gutun bidez giltzak, hau da, zenbait argitasun behar bezala interpreta zedin.

Hona esate baterako *Gernikako Arbola*-ren doinuaren abestu behar den *Ortziren Zaldunen Gudu-kanta*-ri erantsitakoa, edota *Paranoia*-z dioena:

*Oharr: Ez duzu nire kantika hau “au pied de la lettre” hartu beharr, jakina, “zintzoen” gaitziarazteko egin dut soilki.*

*Paranoia: au idatzi nuenean ez nion zentzurik batere josi nai izan: surrealisten “cadavre exquis” bat da, bainan bearbada zentzu gabeko neurtitz oietan besteetan baino olerki geiago idoro daite-ke... (1955-III-22)*

Koldo saiatzen da, ordea, bultzatzaile izatearekin batera mugak argi uzten, idazlanak eskatzen dizkio Miranderi, baina garbi utziz zein den euskal-giroa, zentsura politikoa eta moralak: *–politika-gai batzu kendu ezkerok: emen bat edo beste geiegi asalda dezaketenak–; –...ez ote daukazu ezer gure Ama eta Ugazama geiegi minberatuko eztituztenetarik?–.*

Gidari ere bazen Mitxelena. Hala, Bitoriano Gandiaga poetari, Ramón Menéndez Pidal-en *Flor nueva de romances viejos*, liburutxo bidaliko dio Arantzazura, eta honek eskerrak emanez antzekoak ere idatzi gogo zela erantzungo dio (1959-VI-10). Eta Juan San Martinek egungo euskal poeten bilduma paratu nahi duela jakiten duenean, eta zein sartu beharko lirakeen bertan galdetzen dionean, modu honetara erantzuten dio:

*Olako antologia batean, nik, il berriak dirarenak ere sartuko nuke poema bat edo beste, leenagoko joeren berri eman dezaten: Orixe eta Oxobi sartuko nituzke, beraz. Oraingo-oraingoetan, nai-ta-*



*ez, Aresti, Gandiaga, Mirande eta baita Iratzeder ere sartu bear dira. Gero, joera berrikoen artean, Lasa, Otsalar (ez dakit zein arraio den au) eta Peillen: norbaitek esan dit Azurmendi´k ere poema ederren bat edo beste egin duela, baiña nik ez dut prosista bezala baizik ezagutzen. Berriagoak ere izango dira, noski, baiña eztitut ezagutzen, Olerti noizean bein baizik ezpaitut irakurtzen. Klasiko-tankerakoa, azkenik: don Nemesio, nai-ta-ez, Erkiaga, Lekuona gaztea, Gaztelu... Formaren aldetik Irisarri (Aita Iraizoz) adiñakoak gutxi dituzu gure artean, iñor baldin bada. Eta ausartuko aal ziñake Aita Onaindia eta Zaitegi kanpoan uztera? (179, 1964-VII-8)*

Dena den, San Martin "Otsalar"-ek ez zuen, nik dakidala bederen, antologia hura argitaratu, baizik eta urte batzuek geroxeago Baionako biltzarretik eta *Harri eta Herri*-ren plazaratzeaz geroztik, 1964-69 epean, hogeita bost poeta gazteren poema bilduma, *Uhin Berri* bezala bataiatu zuena.

Eta Mitxelenak emandako zerrendatik Gabriel Aresti, Mikel Lasa eta Julian Lekuona gelditu ziren. Lau urte geroago Ibon Sarasolak paratu zuen gerraondoko antologian (1945-1964) ageri diren zerrendatik erori direnak Oxobi, Peillen eta Lekuona dira, beste honako hauek ere sartu direlarik: Monzon, Mitxelena, Arrese, Krutwig, Aurre-Apraiz "Aurraitz", Muxika, eta Azurmendi.

Hautatzaile eta antologia egile bakoitzak izaten ohi ditu bere gogokoak eta ez hain gogokoak, ikus dezakegun bezala katalanera itzuli eta 1984ean argitaratu zen Jon Kortazarrek egindako bilduman, baina nabarmen gelditzen da, dena den, Mitxelenaren hautua aski zabala zela, eta ez zegoela inongo talde edo kaperatxoren iritzien mende, bere irakurketa eta hausnarketa sakonaren ondorio baizik ez baitzen izen zerrenda hura.

*Egan*-en beste berezitasunen artean ale bakoitzean ageri diren antzerkiak dira, hau da, teatroari literatur idazmota bezala ematen zaion garrantzia. Jadanik 1950ean Maria Dolores Agirreren *Aukeraren maukera azkenean okerra* tituluko bakarrizketatxoa ageri zen, gero Gabonetako gaiaz antolaturiko sari batean, ziria sartu zien epaimahaikoei Manuel Ziarsolok, zeren *Eguberri-aizeak* izenpean aurkeztu baitzuen XVIII. mendeko Pedro I. Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* antzerkiaren moldaketa eta hiru mila pezetako saria jaso. Norgehiagoka horretara ere aurkeztu zuen Jose Antonio Arkotxak bere *Gabon-gabontzetan* antzerkitxoa.

Gerraurrean eta ondoan teatroaren alde gehientsuen egindako Antonio Maria Labaienekin ere izan zituen Mitxelenak harremanak, batez ere hark idazten zituen antzerkien argitarapena zela eta. Horrela ikusten dugu *Jostuna* eskatzen diola errenteriarak, baina ez zuen tolosarrak *Egan*-en plazaratu hau beste antzerki orijinal eta itzulpen zirenak bezalaxe (*Petrikillo, Galtzaundi, Perretxiko jatea,...*) *Euzko Gogoa*-n, baizik.

Itzulpenen artean aurki dezakegu greziar tragiko baten obra, *Euzko Gogoa*-ko zuzendari zen Jokin Zaitegik itzulia. Hau Orixe bezala Ameriketako Guatemalan

luzaro bizi edo iraun ondoren Euskal Herriratua zen, eta hemen bere itzulpen lanekin jarraiki zuen, eta hauen artean *Egan*-en ageriko dena Euripide-ren *Medeie* izango da. Bada, noski, Mitxelenaren gutunotan beste hainbat ohar interesgarri osa dezaketenak berak idatzi eta 1960an argitara emandako euskal literaturaren historia, oraindik zenbaiten iritziz bere laburtasunean idatziriko hoberena, baina hona batzuk soilik ekarrarazi nahi izan ditugu atari moduan.

#### 4. Koldo Mitxelenaren idaztankera

Idoia Estornes Lasa Mitxelenaren estiloaz, hau da, gizon izateko modu bereziaz, izaeraz eta nortasun izugarriaz mintzo zaigularik, haren suaz eta garraz, jakituriaz eta izpiritu zorrotzaz mintzo zaigu. Nola klaseak edota hitzaldiak ematen zituenean ohizkoak ziren haren alde batetik besterako ibilaldiak, joan etorriak ezker-eskuin, korapilatzen eta lotzen zituen bitartean hitzak eta ideiak bata bestearen ondotik, tarteki edota saihets solas oihan amaigabeen erdi galdurik, eta nola esplikazio hauek anitzetan mintzaldiko gaia bera baino askoz ere interesgarriagoak gertatzen ziren, Mitxelenak zeukan erudizio, hau da, jakite zabal eta sakon, iritzi zehatz eta zorrotzaren ondorioz.

Baina, solasean ari zaigunean holakoxea bazen, idatziz berdina ote? Ez, noski. Eta jakina da ere, ez dela idatziz beti bera, ez baita berdin idazten biltzar orokor, errebista, egunkari baterako, edo ezagun, adiskide urrun, hurbil edo minarentzat. Halaber idazki batek, behin moldiztegirako denean, honek iragangaitz eginen dituzkeen erak, gutun iheskor gisara errazago jasan ditzake.

Aitortu beharrean gaude, hala guztiz ere, beti saiatu zela Mitxelena idazten zuelarik, Lizardiren nahi hura mamitzen, alegia, euskera hiritar-noranhikoa borobiltzen eta gauzatzen. Eta egiteko honetan izan zituela bidai-aitzindaririk, hala nola Lizardi bera eta Orixe. Hona zioena gorago aipatu dugun 1954ko artikuluxkan Orixeri buruz:

*Orixegandik bi gauza ikasi ditugulakoan nago [...] euskaraz entzunarazi digun musika berri garbia. Musika hori daukagu belarrietan sartua hamaika ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doinu horretara saiatu nahi genuke gure mintzoa.*

Urte batzuek geroago, ordea, kritika zorrotzak egingo dizkio Orixeri, adibidez, anarkia ortografia kontuetan, adizkerak asmatzea, edota itzultzaile gisara ulergaitza izatea, eta ondorioz, *euskaldunek ezin uler dezaketen itzulpena ezin, beraz, itzulpen egokia izan.*

Mitxelenak bere burua gehiegizko garbikeriatik kanpo kokatzen du, noski, baina sekula ez da errazkeria merkean eroriko, maileguak barra-barra sartuz. Beraz, *in medio virtus*, oraingoan ere erdibidean ikusiko du aukerarik hoberena, ezen mai-legaltzeari baldintzak ezartzen dizkion, hala nola, Europako hizkuntzez molde berean jokatzea, euskal tradizioan hitz aproposik ez izatea eskueran, eta antzekorik izatekotan euskal moldekoa ez izatea behar bezain zehatza.

Elixabete Perez Gazteluk ongiasko adierazten digun bezalaxe, Mitxelenak irakurle langileak eskatzen ditu, uste baitu ez zaiola dena egina eman behar irakurleari, eta pentsarazi, gogoetarazi behar baldin bazaio honi, ez zaiola lanik gehiegi erraztu behar. Iritzi honen arabera Orixeren eta Lizardiren estiloari jarraiki bere adierazgarriak hauexek lirateke: trinkotasuna, kontzeptismoa, elipsia eta labur-beharra.

Koldok ezagutzen zituen, dudarik gabe, erretorikaren arau guztiak, eta gutunek behar zituzten osagarriak, esate baterako, latinez eskatzen ziren, *salutatio*, *exordium*, *narratio*, *petitio et conclusio* deituak, bere lanpetuaren edo adiskidantzaren arabera laburrago edo luzeago ateratzen zitzaizkion, noski, eta batzuetan zirkunstantziatzko hutsalak idazten zituelarik ez dira oro betetzen.

Horrela bada, ikus dezakegu zein (ez)berdin diren sarrera agurrak, hauetariko aldaera batzuk ondorengoak direlarik: *agur*, *ene/nere adiskide ori*, *adiskide (maite) ori*, *ene adiskideak*, *Jaun agurgarri ori...*

Ugariagoak dira bukaerako despedidak, zein formula edo klitxe moduan erabiltzen dituen gehienetan, hala nola: *Aurki arte*; *Aurki arte, bada, eta besarkada estu bat, nere aldetik ere*; *biotzez, biotz-biotzez*; *biotzez agurtzen zaitu zure adiskide (Jainkoari eskerrak) desmitifikatu honek*; *esanera naukazu/ gauzkazu (biotzez)*, *esanera naukazu beti bezala, zure esaneko*; *ar itzazu... agurrik beronenak / ene goraintzirik biotzekoenak*; *ar ezazu adiskide berantkor onen biotzeko agurra*, *Goraintziak eta eskerrak*; *Milla esker eta esanera naukazu...*

Ohizkoak diren guzti hauen artean badu bat berezia, umorez egina, lagun-mina zuen Jon Miranderi eskainia, eta honelaxe dioena: *Milla eta milla esker. Eta bidai-on druiden artean...*

Maite du ere Koldok noizpehinka eta halabeharrez, euskaraz, gaztelaniaz, frantsez, ingelesez edo latinezko hitz, errefrauak, eta esamoldeak, zein Joxe Manuel Bujandak bildutako errepertorioa hedatzera datozkigukeen, hala nola: *pozez eta atseginez, astiro eta begiak argi, izaeraz eta eskarmentuz, no le conozco ni d'Adam ni d'Eve, short story, sine ira et cum studio, cum laude, ratio studiorum...*

Edota Jose Maria Satrustegiri zuzendutako azken gutunean bezala, zeinetan nabarmen den Xenpelar eta Txirritaren bertso herrikoien ildotik hauetaz baliatzen dela astindu nahi dituenak zirikatzeke:

*Ez egin kasorik  
Umeen esanari,  
Ezta ume antzeko haiziei ere. (237)*

Kapitulutxo honen hasieran tartekiez edo saihets-solasez mintzatu naizenez hona adibide batzuk soilik:

*Zenbaki au –bigarren aldi ontako leenbizikoa–; neronek –Euskal-Filologi-Muintegi onek, obeto esan–; baiña bein eta berriro ori*

*esatearekin ezer –edo zerbait beintzat– aurreratzen aal dugu; baiña alabarrak gauzak onela zuzendu (edo okertu) ditu; eztaukagu aazturik –ba ote dago esan bearrik?–; batasunera bidean.*

*Orixek dion bezala - abia; ez naiz zuriketan ari (ezagutzen nauzu, noski, horrenbestean);...*

Beraz, badirudien arren ibai-adarretan dihoalarik, adarrez-adar galdurik bailitzan murgildurik dabilela eta irakurleak erreferentziak ezagutzen ez baditu, irakurle aditu eta adimentsua ez bada ez dela deusetaz jabetuko, azkenean bide xidorrak utzi eta errepidera itzultzen da, eta gaiari sendo eutsiz behar zuen sakontasun eta zehaztasunean argitzen du.

Mintza nadin, azkenik, prestatu dugun edizioaz laburzki, bada ere. Gutunak, ezin bestela izan egileari diogun begiruneagatik, dauden-daudenean transkribitu ditugu, inolako aldaketarik gabe, makina edo tresneriaren aitzinamenduen kontutxo bat besterik ez baitut erabili, eta honetan ziur naiz berak baimena emanen zidala, eta da, azpimarratuak edo komatxoaren artean diren zenbait hitz, errebista eta liburu tituluak letra etzanez edo kurtsibaz eman dugula, komatxoak artikuluak aipatzeko soilik erabiliz: “Egan”, “Abarrak”, *Economie des changements phonétiques* > *Egan, Abarrak, Economie des changements phonétiques...* bilakaturik gelditu direla.

Gehiagoko luzamendurik gabe pulunpa zaitetz, irakurle, Koldo Mitxelenaren gutunen inguru-minguruetan, eta dasta itzazu, jakituriaz beterik eta euskara eder, malgu, zuzen eta ezin hobean idatzirik baitaude.

## 5. Koldo Mitxelenaren oinarritzko bibliografia

- ALTUNA, P. (ed.), 1972, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Etor, Bilbo.
- ALTUNA, P. et al. (ed), 1988, *Koldo Mitxelena. Euskal idazlan guztiak*. Donostia, Euskal Klasikoak 21-29.
- ARBELAIZ, J.J., 1984, *Las etimologías en la obra de Luis Michelena*. Karda-beraz, 31. Vitoria.
- ECHENIQUE, M. (ed.), 1985, *Luis Michelena, Lengua e Historia*. Paraninfo, Madrid.
- ESTORNES, I. et al., 1997, *Koldo Mitxelena Elissalt, 1915-1987*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- GORROCHATEGUI, J., (ed.), 1987, *Palabras y textos*. UPV, Gasteiz.
- IBARZABAL, E., 1977, *Koldo Mitxelena*. Erein, Donostia.
- LAKARRA, J. (ed.), 1988, *Luis Michelena, Sobre Historia de la Lengua Vasca*. ASJU, Gehigarria 10.
- MICHELENA, L., 1953, *Apellidos Vascos*. Biblioteca de autores vascos. Donostia.
- MICHELENA, L., 1960, *Historia de la Literatura vasca*. Minotauro, Madrid.
- MICHELENA, L., 1963, *Lenguas y protolenguas*. Universidad de Salamanca.
- MICHELENA, L., 1964, *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madrid.
- MICHELENA, L., 1977, *Fonética Histórica Vasca*. 2<sup>a</sup> ed. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- PEREZ GAZTELU, E., 1995, *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*. Erreneriako Udala.
- SAN MARTIN, J. et al. (ed.), 1987, *K. Mitxelena. Gizona eta hizkuntza*. Egan, XL. Donostia.



Antonio Valverde "Ayalde"-k eginiko Koldo Mitxelenaren marrazkiak.  
(Valverde-Lamsfus familiaren orijinala)